

Erika Irusta

HILEKOA IRAKASTEN



NOLA IRITSI NAIZ NI HONAINO?

Ibilbide profesionalak eta pertsonalak eraman zuten Erika Irusta hilekoa ikertzeraz. Pedagogia ikasketak bukatu ostean Bartzelonan erditu ondorengo emakumeekin lanean aritu zen. Harrigarria iruditu zitzaion gure gorputzekiko dugun ezagutza falta. Horrela ekin zion pedagogia feministatik ikertzeari eta ikastaroak emateari. Garai berean haurdun geratu zen eta haurra galdu zuen. Esperientzia lazgarri horrekin ohartu zen haur bat agian ez, baina hilekoa bai, hilero edukiko zuela eta berorrekin bizitzen ikasi beharko zuela. Horrela hasi zen hilekoari garrantzia ematen.

“Odola isurtzen uzten digute, baina beti ere, inor zipriztindu gabe”

Pedagogo, idazlea eta aktibista feminista da Erika Irusta (Barakaldo, 1983). Hilekoaren inguruan ikertzen eta ikertutakoa hedatzen dihardu. 2010ean El Camino Rubi izeneko webgunea abiatu zuen eta 2015ean, *Soy1soy4* plataforma hezitzailea jarri zuen martxan sarean. Bi liburu ere argitaratu ditu: *Diario de un Cuerpo* (Catedral, 2016) eta *Yo menstruó. Un manifiesto* (Catedral, 2018).

TESTUA | **MALEN ALDALUR AZPILLAGA**
ARGAZKIAK | **ISMAEL LLOPIS**

Hilekoaren pedagogiaren inguruan diharduzu lanean eta terminoa ere zuk sortu zenuen.

Zer esan nahi du?

Hilekoaren pedagogia ez da existitzen termino akademiko gisa, eta niri interesgarria iruditzen zitzaidan gainerako zientzietan hilekoa nola azaltzen zen behatzeko prozesu hezitzaile bat abiaraztea. Hilekoa multidimentsionala dela ulertu behar da. Ohartu behar gara, fisiologikoa izateaz gain, hilekoa esperientzia sozial, politiko eta kultural bat dela.

Honako esaldia esan ohi duzu: “Hilekoa ederra da, baina gizarte honetan mina ematen du”.

Zer esan nahi duzu?

Hilekoa ederra da izeneko artikulua bat idatzi nuen eta jendearengana iritsi zen. Batzuei asko gustatu zitzaion, baina beste asko haserretu ere egin ziren. Beraiek min handia edukitzen zutela eta ea halakorik nola esan nezakeen esan zidaten. Orduan argitaratu nuen artikulua bigarren zatia: *Hilekoa ederra da, baina gizarte hone-*

tan mina ematen du. Gloria Steinemek 1978an idatzi zuen zer gertatuko litzatekeen gizonezkoek hilekoa izango balute. Hilekoa ez baita arazoa, hileko hori duen gorputza baizik. Testuingurua kontuan hartzea ezinbestekoa da esperientzia sexualaren inguruan ari garenean. Horrela ohartzen zara arazoa edo gaizki dagoena ez direla zure hormonak edo zure gorputza, oinordetzan jasotako begirada misogino hori baizik. Horregatik da zaila hilekoa edukitzea gizarte honetan.

Gloria Steinemenen testua aipatu duzu. Bertan dio gizonek hilekoa izango balute errealitate desiragarria izango litzatekeela.

Burua lehertu zitzaidan testu hau aurkitu nuenean. Hilekoaren inguruan ikertzen ari nintzenean ez nekien oso ondo zeren bila nenbilen eta testu honek begiak ireki zizkidan. Gakoa da hilekoa zeinek duen, hau da, zein den subjektu politikoa. Horregatik jaso dut testua liburuan. Gainera, kasu honetan genealogia feminista bat jasotzeko aukera ere eskaintzen zidan.



"GERTATZEN ZAIDANA ULERTZEAK LAGUNDU DIT MUNDUAN ARINAGO EGOTEN ETA ARAZOA EZ NAIZELA NI ULERTZEN".

Mito asko dago hilekoaren inguruan. Lehenengo mitoa da hilekoa jaistea-rekin batera egiten zarela emakume. Hori ikaragarria da. Izan ere, genero bat ezartzen zaie gure hormonei. Beste mito bat feminitatearen genearena da: honen ustez, feminitatea gure uteroan dago. Orain argi geratu da ez dela horrela, izan ere, uteroa kendu dieten emakume askok jarraitzen du emakume izaten, baina oraindik badago erre-zelo hori. Hala ere, mito handienetako bat da hilekoak mina emate duela. Hilekoak ez du minik ematen, eta min ematen badu, horri, dismenorrea deitzen zaio. Gizonezkoek hilekoa izango balute gehiago ikertuko litzateke eta ez litza-teke onartuko minez egotea. Ez liekete esango guri bezala, normala dela eta pasatuko zaiela. Azkenik, hor daukagu odol urdinarena edo hilekoarekin gaudela inolaz ere ez igartzearena. Odola isurtzen uzten digute, baina bai beti ere, zipriztindu gabe.

Pilula antisorgailuen aurrean ere eztabaida handia dago.

Pilula horiek gure obulazioa eteten

dute eta obulatzea beharrezkoa da. Nik uste eztabaida harago eraman eta ikusi behar dugula nondik datorren pilula. Eliza katolikoari eta genozidio naziari lotuta iristen da, baina ikusi behar da nola bihurtzen den sistema misogino baten erreminta eta nola barneratu dugun.

Puri-purian dagoen beste eztabaida bat da higiene produktuekin lotutakoa.

Gai honetaz hitz egitean argi eduki behar da zein pribilegio posiziotatik hitz egiten dugun. Beti jartzen dut adibidetzat Silicon Valleyn gertatutakoa: kalean bizi diren emakumeen artean koparen erabilera bultzatzeko asmotan kanpaina bat abiatu zuten, kalean bizi ziren emakumeei kopak erosteko. Gero, ohartu ziren emakume hauekin ez zuela ondo funtzionatzen, kopa erabiltzeko beharrezkoa baitira higiene minimo bat eta ondo garbitzeko baliabideak. Beraz, kontuan eduki behar da guretzako aukerarik onena beti ez dela denentzat aukerarik onena. Esaterako, nire lagun bat errefuxiatuen kanpamendu batean

dago eta esan zidan hango emakume batzuek ez dutela nahi alutik ezer sartu, beraz, kopak eta tanpoiak ez diete baliu. Garrantzitsua da aukerak edukitzea eta horretarako beharrezkoa da aukera horiek guk, hilekodun pertsonok, diseinatzea.

Gorputz ziklikoak garela diozu, eta aldaketa hormonal zein kimikoek nahitaez eragiten dutela gure aldaketa fisiko, mental eta aldartekotan. Nola bateratu gure ziklikotasuna eta gure egunerokoa, sistematik irten gabe?

Hori da asmatu nahian nabilena. Bakarrik egitea oso zaila da, edo ezinezkoa. Horregatik sortu nuen *soy1soy4* komunitate hezitzailea sarean. Batzuetan zure ziklikotasunaren kontzientzia hartzen duzunean frustrazioa ere sentitu dezakezu. Izan ere, aurretik ez zara ohartzen gertatzen ari denaz, baina ondoren bai, eta hala ere, aurrera egiteko arazoak dituzu. Gure ziklikotasuna modu osasungarrian bizitzeko ezinbestekoak dira zaintza sareak, konfiantzazko ingurunea, eta nola ez, aliatuak. ●